



Iguazuko

UR-JAUZIAK



NATURAK SORTUTAKO MUNDUKO PAISALA EDER eta ikusgarrienetako bat dira Iguazuko ur-jauziak. Argentina eta Brasil arteko mugan daude, eta Iguazu ibaiaren urek elikatzen dituzte.

Ibaiak azaroa eta martxo bitartean izaten du ur-emari handiena, eskualde horretako eurite-garaian alegia. Hilabete horietan, ur-jauziek,

batez beste, segundoko milioi bat litro ur jaurtitzen dute, hau da, segundo bakoitzean 10 igerileku olinpiko hustuko bagenitu bezala. Ur-jauzi kopurua Iguazu ibaiaren emariaren arabera da. Emaria txikia denean, 160 ur-jauzi; handia denean, berriz, 260. Guztien artean handiena “Deabruaren arroila” da: 80 metroko garaiera du.





Ur-jauziak duela ehun bat mila urte sortu ziren. Faila geologiko batek Paraná ibaiaren ibilgua puskatu zuen, eta, horren ondorioz, Iguazu ibaiaren bokalea ur-jauzi izugarri bihurtu zen. Gaur egun, 23 kilometroko distantzia dago ur-jauzia sortu zen jatorrizko tokitik gaur egungo tokiraino; izan ere, urak sortzen duen higadura geldo baina etengabearen ondorioz, ur-jauzien posizioa atzera eginez doa poliki-poliki.

Higatze-prozesuak aurrera jarraitzen duenez, Iguazuko ur-jauziek atzeraka jarraituko dute datozen milurtekoetan, antzina-antzinatik gertatzen den bezalaxe.●

